

Euskal AEn establezimenduak dauzkaten erakundeetan osasun-aseguru bat duten pertsonen kopuruak % 6,4 egin du gora 2021ean


Emakumeak aseguru duen kolektiboaren % 53 dira

2021ean, Euskal AEn bizi diren 504.762 pertsonak, guztira, Euskal AEn finkatuta dauden erakundeetan osasun-aseguru bat dute; alegia, % 6,4ko igoera egon da, 2019 ekitaldiarekin alderatuta, Eustaten datuen arabera.

Aseguratutako pertsona horiek osasun-sistema publikoaren zerbitzuak osatzea edo espezialitate batzuetan prestazioak areagotzea dute helburu, eta, pertsona kopuru horretan egon den igoeraren ondorioz, aseguru medikoa duten herritarren proportzioa % 23ra iritsi da (2019an % 22). Lurralde historikoen arabera, proportzio hori handiagoa da Bizkaian (% 30,4ra iritsi da), ondoren Araban (% 17,9) eta, azkenik, Gipuzkoan (% 13,6). Osasun-asegurua duten pertsonen kopuruaren igoera, hala ere, handiagoa izan da bai Araban (% 9,0) bai Gipuzkoan (% 9,5). Bizkaian igoera % 5,1ekoa izan da.

Kolektibo horren ezaugarriei dagokienez, % 52,8 emakumeak izan dira eta % 47,2, gizonak. 45-64 eta 25-44 urte bitarteko taldeak aseguraturako biztanleen % 61 izan dira, eta, adin pediatrikoan izan ezik, nagusiak nagusitu dira haietan guztietan, eta, bereziki, amatasun-etaparekin zerikusia duenean.

Osasun-aseguru pribatua duten pertsonak Euskal AEn, adin-taldearen eta sexuaren arabera. 2021




Iturria: Eustat. Osasun arretra pribatuaren estatistika

Kontsulta mediko batera joan diren gehienak espezialista bat bisitatzeke joan dira

Guztira, 1,6 milioi kontsulta izan dira aseguru pribatuko erakundeen kargura; alegia, 3,1 bisita medikuarenera aseguratu bakoitzeko. % 11,3 lehen mailako arretara (familia-medikuntza eta pediatria) eta % 88,7 (1,4 milioi) arreta espezializatura. Honako hauek izan dute eskaririk handiena, hurrenkera honi jarraikiz: traumatologia (215 mila baino pixka bat gehiago), obstetrizia eta ginekologia, oftalmologia eta dermatologia (haietan guztietan, urtean 100 mila bisita baino gehiago).

Osasun-asegurua duten pertsonen kontsulta-kopurua Euskal AEn, espezialitatearen arabera. 2021



Iturria: Eustat. Osasun arreta pribatuaren estatistika

Aseguru kolektiboak izan dira osasuneko primen bolumena areagotzea ekarri dutenak

Osasun-asistentzia pribatuko zerbitzuak eskaini dituzten konpainiek 366,2 milioi euro bildu dituzte, primen kontzeptuan; alegia, % 6,5 gehiago 2019an baino. Zifra hori BPGd-aren % 0,47 izan da 2021ean. Lurraldeen arabera, prima horren ordainketaren % 71,2 Bizkaian kontzentratu da, % 18,2 Gipuzkoan eta % 10,6 Araban.

Kontrataturako polizen modalitatea kontuan izanda, primen % 52 aseguru kolektiboena izan da, % 40,7 aseguru indibidualena edo familiarrena eta % 7,3 funtzionarioen mutualitate publikoena. 2019. urtearekin alderatuta, aseguru kolektiboak hazi dira gehien (% 10,8), gero indibidualak edo familiarrak (% 2,6), eta funtzionarioen mutualitateetakoek, berriz, % 0,2 egin dute behera.

Euskal AEko osasun-aseguramenduaren magnitude nagusiak. 2021

	2021	2019	Gehikuntza (%) 2021/2019
ASEGURUA DITUZTEN PERTSONAK	504.762	474.462	6,4
Lurralde Historikoaren arabera			
Araba/Álava	59.133	54.255	9,0
Bizkaia	347.755	330.821	5,1
Gipuzkoa	97.874	89.386	9,5
Aseguratutako biztanleriaren ehunekoa (%)	23	22	
PRIMEN BOLUMENA (mila €)	366.238	343.882	6,5
Lurralde Historikoaren arabera			
Araba/Álava	38.815	35.338	9,8
Bizkaia	260.791	247.027	5,6
Gipuzkoa	66.632	61.517	8,3
Modalitatearen arabera			
Banakako aseguruak	149.076	145.310	2,6
Mutualitate publikoak	26.555	26.600	-0,2
Aseguru kolektiboak	190.607	171.973	10,8
Pisua BPGrekiko (%)	0,47	0,43	

Data 2022ko Urriaren 25a

Iturria: Eustat. Osasun arreta pribatuaren estatistika

Ohar metodologikoa:

Estatistika honek Euskal Autonomia Erkidegoan gutxienez establezimendu bat duten aseguru libreko erakundeen informazioa jasotzen du. Ez dira jasotzen borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak; izan ere, ez dute aseguratzaileria.

Argibide gehiagorako:

[Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

[Osasun-arreta pribatuaren inguruko Estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiago](#)